



UDAL LIBURUTEGIKO **IRAKUR PUNTUKO MARRAZKIA** **AUKERATZEKO LEHIAKETA**

Liburutegiak urtero ateratzen ditu irakur puntuak, alde batean egutegia eta ordutegia dutela, eta beste aldean, marrazki bat.

Aurreko urteetan bezala, marrazki hori lehiaketa bidez aukeratuko da, baina aurtengoan **12 eta 16 urte bitarteko gazteei zuzenduta egongo da.**

Saria, 150€

BALDINTZA TEKNIKOAK

Tamaina: **20 cm-ko altuera** eta **5,5 cm-ko zabalera**.

Lema bat izan behar du.

Gaia eta teknika: libreak.

Marrazkia argitaragabea izan beharko da.

AURKEZTEKO ERA

Udal Liburutegian jasoko dira **azaroaren 27a** baino lehen.

Anonimotasuna gordetzeko bi sobre entregatu behar dira, eta bietan, kanpoaldean, lema idatzi. Sobre batean marrazkia sartu (tolestu gabe), eta bestean egilearen datuak (izen-abizenak eta telefono zenbaki bat).

Jasotako lanekin erakusketa bat egingo da.